



Donostiako
Musika Hamabostaldia
Quincena Musical
de San Sebastián



Donostiako
Musika Hamabostaldia
Quincena Musical
de San Sebastián

Centro Kursaal Elkargunea
Zurriola 1
20002 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 00 31 70
quincenamusical@donostia.eus
www.quincenamusical.eus

Datozen kontzertuak / Próximos conciertos:

20/8

20:00
Cappella Mariana
Constantinople
Vojtech Semered zuzendaria
Ramón Barea narratzailea

26/8

19:00
Haurren Hamabostaldia
Quincena Infantil
“Egia ala geRuza”
Easo Eskolania eta Easo Txiki
Easo Sinfonietta

Sarrerak / Entradas

Taquillas / Leihatilak:
Kursaal
Teatro Victoria Eugenia
Antzokia
www.quincenamusical.eus

Informazio gehiago:
Más información:



85 musika
hamabostaldia

quincena
musical

donostia
san Sebastián
abuztua 1–30
agosto 2024



19/8 Alexandra Dovgan



Grigory Sokolov handiaren ikasle den pianista gazte eta gailentzen hasiak kontrastez eta birtuosismoz beteriko programa aparta eskainiko digu, eta musikaren historiaren 100 urte baino gehiago bilduko ditu bertan. Ludwig van Beethovenen *31. sonata La b maiorrean op. 110* lana (1821ean idatzia) haren sonaten katalogoko lan helduenetako bat da. Katalogo horretan 32 sonata biltzen dira, guztira. *Moderato cantabile molto espressivo* gozoak ematen dio hasiera lanari, eta bertan nabarmena da Haydn sinfonikoaren eragina. Mugimenduan dotorezia gailentzen da, nagusi direla *pianoa* eta *leggerea*. *Scherzo* motako *Allegro moltoa*, Fa minorrean, askoz ere kementsuagoa da, zailtasun erritmiko handiagokoa; haren ondoren dator azken mugimendua, non lotzen baita *adagio ma non troppo* bat *arioso dolente* errezitatibo eta penagarri batekin. Azken horretan, Beethoven sakonago bat ageri zaigu, La b minorrean, eta jatorrizko tonalitatera itzuliko da, fuga moduan. Dena amaitzen da arpegioekin eta garaipenezko akorde batekin tonikan.

Hamar urteren ondoren, Robert Schumann-ek oso bestelako *Pianorako 2. sonata, Sol minorrean* (1830-38) lana osatu zuen. Izugarri zaila zen, eta emazteak, Clara Schumannek, 1838an *finalea* aldatzeko gomendioa egin zion senarrari gutun

batean, «zailegia» zela adieraziz. Era horretara, urte hartan bertan, musikagileak birmoldatu egin zuen *Rondo-Sonata* formako azken mugimendua, eta oraingo *Rondo-Presto* bihurtu zuen, lan lerden honi amaiera emateko.

Alemaniatik Errusiara joango gara, Rachmaninoven jaioterrira, alegia. Hark transkribatu zuen *Preludioa, Gavota* eta *Giga* multzoa Johann Sebastian Bach maisu barrokoaren *Biolinerako 3. partitura, BWV 1006* lan ezagunaren gainean (1933). Rachmaninovek osatu zuen, halaber, *Corelli Bariazioak op. 42*, Arcangelo Corelliren *Biolin, violone eta klabezin sonata* lanean inspiratuta; azken hori, halaber, *Folia* ezagunean oinarritua da. Bertako interbalo jauzi handiek zehaztasun handia eskatzen diete interpreteei, eta eskuak gurutzatu eta ahotsak kontrolatu behar dituzte. Europa ekialdetik irten gabe, 1892an hasi zuen Alexander Scriabinik *2. ‘Sonate-Fantasie’ Sol diese minorrean*, eta 1897an amaitu zuen. Bi mugimendu baino ez ditu, etenik gabe, eta horrek Beethoven gaztearen lehenengo sonaten eragin nabarmena adierazten du. *Claro de Luna* ezagunean egiten duen bezala, Scriabin *Andante* liriko eta ameslari batekin hasten da, eta etenik gabe lotzen zaio hori kantuari laguntzen dion hirukotxo biziko *Presto* sutsu bati.

Claudia Manzano Guardia*



Alexandra Dovgan

19/8

Astelehena / Lunes
20:00

Alexandra Dovgan

pianoa

Ludwig van Beethoven (1770-1827)
SONATA Nº 31 EN LA BEMOL MAYOR
OP. 110
Moderato cantabile molto espressivo
Allegro molto
Adagio ma non troppo

Robert Schumann (1810-1856)
SONATA Nº 2 EN SOL MENOR OP. 22
So rasch wie möglich
Andantino. Getragen
Scherzo. Sehr rasch und markiert
Rondo. Presto

Johann Sebastian Bach (1685-1750) /
Sergei Rachmaninov (1873-1943)
PRELUDIO, GAVOTA Y GIGA
(Transcripción de la Partita para violín nº 3 BWV 1006)

Sergei Rachmaninov
VARIACIONES SOBRE UN TEMA DE
CORELLI OP. 42

Alexander Scriabin (1872-1915)
SONATA Nº 2 EN SOL SOSTENIDO MENOR OP. 19
Andante
Presto

La emergente y joven pianista, alumna del gran Grigory Sokolov, ofrece un exquisito programa de contrastes y virtuosismo que abarca más de 100 años en la historia de la música. La *Sonata nº 31 op. 110 en La b mayor* de Ludwig van Beethoven, escrita en 1821, es una de las composiciones más maduras de su catálogo de sonatas, que aglutina un total de 32. Un dulce *Moderato cantabile molto espressivo* inaugura la obra, cuyo tema es influencia del Haydn sinfónico. El movimiento brilla por una elegancia que no pasa desapercibida, predominando un carácter *piano* y *leggero*. Un *Allegro molto* en Fa menor tipo *Scherzo*, mucho más enérgico y de complejidad rítmica, da paso al último movimiento, en el que se conecta un *Adagio ma non troppo* con un recitativo y un lamentoso *Arioso dolente*, que nos revela a un Beethoven más profundo, en La b menor, que volverá a la tonalidad original en forma de fuga. Todo concluye con arpegios y un acorde triunfal en la tónica.

Una década después Robert Schumann trabajó en una muy diferente *Sonata para piano nº 2 en Sol menor* (1830-38). Su extrema dificultad fue juzgada por su esposa Clara Schumann, quien le recomendó cambiar el *Finale* por ser «demasiado difí-

cil» en una carta a su marido de 1838. De esta manera, ese mismo año el compositor remodeló el último movimiento con forma *Rondo-Sonata* en el actual *Rondo-Presto* que finaliza esta garbosa pieza.

Desde Alemania nos transportaremos a Rusia, país natal de Rachmaninov, quien transcribió el conjunto de *Preludio, Gavota* y *Giga* sobre la conocida *Partita para violín nº 3 BWV 1006* del maestro barroco Johann Sebastian Bach en 1933. Rachmaninov también firma las *Variaciones Corelli op. 42*, inspiradas en la *Sonata para violín, violone y clavecín* de Arcangelo Corelli, basada a su vez en la conocida *Folia*. En ellas, los grandes saltos interválicos exigen al intérprete precisión, con cruces de manos y control de voces. Sin salir del este europeo, Alexander Scriabin comenzó en 1892 la *Sonata n.º 2 ‘Sonate-Fantasie’ en Sol sostenido menor*, completada en 1897. Consta de dos únicos movimientos en continuo, lo que supone una clara influencia de las primeras sonatas del Beethoven juvenil. Al igual que en su conocido *Claro de Luna*, Scriabin comienza con un lírico y soñador *Andante* que conecta sin pausa con un *Presto* muy fogoso de veloces tresillos que acompañan al canto.

Claudia Manzano Guardia*

*Musika Hamabostaldiak finantzatutako *Musika Hitzetan* lankidetzaren proiektuan parte hartu duen Musikeneko ikaslea

*Alumna de Musikene participante en el proyecto de colaboración *Musika Hitzetan* (Música en palabras) financiado por la Quincena Musical